Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abuztuaren 18a, asteazkena — 157 — Miércoles, a 18 de agosto de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak.*

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak 2021eko uztailaren 29an egindako bilkuran, segidan jasotzen den ebazpen-proposamena egin du, desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzen inguruan.

Interesatuek, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 10 eguneko epea dute, ebazpen-proposamen honi alegazioak aurkezteko beharrezko ikusten badute.

Usurbil, 2021eko uztailaren 30a.—Beñat Larrañaga Urdanpilleta, alkateordea. (5447)

*Ebazpen proposamena*

IKUSIRIK

2021eko apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko hogei laneguneko epea izan zuten interesdunek. Hala, eskaerak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 5ean amaitu zen.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak dirulaguntza eskarien ebaluazioa egin du.

ETA KONTUAN HARTURIK

— Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.

— Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008-07-01).

— Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2021-04-07).

— 2021ean Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntza oinarriak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2021-04-07).

Guzti hau kontuan izanik, 2021eko uztailaren 29an egindako Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamen hau egiten dio alkate-lehendakariari:

*Lehenengoa:* Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako 2021. urteko dirulaguntza kopuru hauek onartzea:

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Subvenciones para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencia.*

La Comisión General de Subvenciones en sesión celebrada el 29 de julio de 2021, ha emitido la propuesta de resolución que se adjunta a continuación, en relación con las subvenciones para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencia.

Las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para presentar las alegaciones que estimen oportunas ante esta propuesta de resolución.

Usurbil, a 30 de julio de 2021.—El teniente de alcalde, Beñat Larrañaga Urdanpilleta. (5447)

*Propuesta de resolución*

ANTECEDENTES

El 7 de abril de 2021 se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las bases que regulas las subvenciones para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencia, concediéndose un plazo de veinte días hábiles para presenar las solicitudes. Es decir, las solicitudes debían ser presentadas antes del día 5 de mayo de 2021.

El personal técnico del área de Servicios Sociales ha evaluado las solicitudes de subvención.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Ordenanza municipal reguladora de las subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa 01/07/2008).

— Plan estratégico de subvenciones 2020-2022 del Ayuntamiento de Usurbil (07/04/2021).

— Bases reguladoras de las subvenciones para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencia (Boletín Oficial de Gipuzkoa 07/04/2021).

La Comisión General de Subvenciones, en la reunión celebrada el día 29 de julio, emite la siguiente Propuesta de resolución a la Alcaldía-presidencia:

*Primero:* Aprobar las siguientes subvenciones en el año 2021 para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencia:

| | *Eskatzailea* | *Onartutako dirulaguntza* | *Oharrak* |
|---|---|---|---|
| 1 | I.M., M.G. | 400,00 € | Dirulagutza osagarria jaso ahal izateko muga gainditzen du. |
| 2 | Z.C., M. | 400,00 € | - |

EK\CV GAO-I-2021-05447

| | Solicitante | Subvención aprobada | Observaciones |
|---|---|---|---|
| 1 | I.M., M.G. | 400,00 € | Supera el límite establecido para poder acceder a la ayuda complementaria. |
| 2 | Z.C., M. | 400,00 € | - |

*Bigarrena:* Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

*Hirugarrena:* Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.480. 231.03.05.2021 (A 1496-2021).

*Laugarrena:* Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

*Bosgarrena:* Aipatutako epean alegaziorik ez balitz aurkeztuko, Tokiko Gobernu Batzarrak da-gokion erabakia hartuko du.

*Seigarrena:* Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

*Segundo:* En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá subvención alguna.

*Tercero:* Las subvenciones del 2021 para tratamientos de mejora del estado de salud de menores con discapacidad y/o dependencial se concederán con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1.8000.480.231.03.05.2021 (A 1496-2021).

*Cuarto:* La propuesta de resolución será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para presentar las alegaciones que estimen oportunas.

*Quinto:* Si en el plazo señalado no se presentaran alegaciones, la Junta de Gobierno Local adoptará el acuerdo correspondiente.

*Sexto:* También se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolucíon definitiva en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus.